

## Leitzako errege erreginak (Ahoz belarrirako urre altxorretan)

Patziku PERURENA\*



“Eder zaiku guziera obra ederren aiphatzia: nahiz diren egi?ak Erregetasunian, Errepublikan edo Enperadoreguan miresten ditugu. Gizon behar bezalakuak, emaile eta leihalak, edozein bandera izan dezan, gure amodiua eta ezagutza merezi ditu; bertzela uste dutenak itsumenduan dire.

Gizonak ethorkiari utz detzaken obra eder eta laudagarrienak ez dire atsegi? eta urgulluarentzat altxatzen dituenak, bai?an bai beharrian direnen laguntzeko eta hirriskutan jende bizien sokorritzeko egiten dituenak. Hek xutik daudeno azkar daukate ondokuen bihotzetan egiazko ungi egi?en orhoitzapen ezin hilla.

Mundu hau aldamio handi bat bezala da, erretaulez bethia: batzuek atsegi?aren eta zorionaren itxura irakusten dute eta bertzek orhoitzapen mingarriak gogoratzen. Familia bat ontasunez gainditua igeri zorionian bizi da, eta etxe berian bertze familia bat gosiak irestera dua.

185

Gizon bat zorioneko ametsetan loharkartua da: ethorkizuna irriz agertzen zaio guzia lore eta urhe; eta haren etxiaren atalapustan trikatu etsaiak, arphegi ikharagarri batekin, goguan dabilka horren galtzia.

Bai?an eskas da aldamio hortan erretaula latzgarriena. Erretaula hura gorderik daguen erromesarena da, zeren zorigaitzian eroriz geroz, bere bakhartasunera utzia baita; guziez ahantzia eta uste gabez orhoitzen balin badire hartaz, jendiek irri egiten dute urrikalmendurik gabe”.

(Jean Baptiste Dasconaguerre: AtheKa Gaitzeko Oihartzunak)

Leitza

1996

## Azalpen batzuk, lanari buruz\c

Badakit lan honek bere txokoan hartzen duela arnasa eta grazia. Baina Euskal Herria, txoko askok osatzen du. Leitzakoa, har liteke beste edozein herriren lekukotzat. Gauza jakina baita, lekukotasunak ematen diola nortasuna, grazia eta zentzua gizatasunari, eta pena litzake nork berea galtzea.

Nik lan honekin bizi nitzakeen atseginaldirik haundienak bizixeak ditut. Liburua osoan txukun argitaratzeak berak, ez dit bertsokontuak biltzekoan bizi izan ditudan pozaldiei hurreratzekorik ere eman. Oso langite atsegina izandu da neretzako, adinean aurreraxe doazen euskaldunek edozein kontutturekin nere ingurua sentitzen zeinen aise eta xalo erakutsi didaten ohartzea. Emazu kontu: haurtu egin naizela bolada batez, garai bateko aiton amon zokoratu eta bakartu askoren aurrean kontu xorragarriak aditzeko. Zer atsegina gorik haur baten gogobihotzetarako?

Nere bizitzak, nere herriak, nere hizkuntzak, ez luke zentzurik hitzun horrenik gabe. Nere iza-tearen funtsa hitzun horiei zor diet. Niri, ez elizak, ez udalak, ez eskolak, ez unibertsitateak, ez telebistak, eman didan zentzua, bihotza, atxikimendua eskeintzen dizut, ofizialtasuna beti arrotzat jo duen euskaldun xehe horren ahotan.

Eta ez nuke besterik nahiko, hitzun horiek har dezatela liburu hau eskuan, eta beren bizitzako pasadizorik mingarrienak, pozgarrienak, lotsagarrienak, ohoragarrienak, gogoangarrienak... beren ilobengandik leitzuz, adituz, kantatuz, oroituz... poztu edo haserretu daitezela beren ahotik jaso dudana hitza, letra bihurtzean zeinen hotz eta moldagaitz gelditu den ikusiz.

# 186

Baina beren bihotzeko oihartzunak sumatuz senti daitezela gure bihotzeko hizkuntzaren eta arimaren maisu-maistra xahar, eta ondorekook ikus dezagula haiek eman diotela zentzua gure bizitzari, gure herriko bazterrei, gure hankapeko lur mutuari, eta haien gizalditako altxorrik gabe ez duela zentzurik gure hizkera arrotzu egel honek.

Aitor dut, nik ere arrotzu egin dut hitzun horien ahotsa, idazleok traidore lana egiten baitugu beti, eta ahotik papererako ateka gaitzean are nabarmenago; baina, beste aldetik iruditzen zait, hornitu eta sendotu egin dudala, beren kultura xoragarria gutietsirik daukaten jakintsu xahar horien ahotsa, omenkako hitzari zinezkotasun zuria erantsiz, eta hitzun horien oroimen harrigarria dokumentu idatziz goretsiz.

Baina ez. Hitzunen ahoko hitza dokumentuz hornitu badut, historia ofiziala baino atsegina eta zinezkoago dela frogatzeko egin dut, eta ez alderantziz. Kastako hitzunen ez baitu zentzu historikorik. Eskeptikoa duzu hagitz. Sumatzen dizu historiaren zinezkotasun kontu hori, giza irudimenaren hutsa baino ez dela. Zinezkoaren gaineko josteta baizik ez dela hitza, letra bihurtzean pisutu eta zapuztu baizik egiten ez dena. Horixe da poeta xaharrongandik ikasi dudana: hitz batekin gainez egiten dugula, edo hitz guziak eskas ditugula, baina tarte horretan, nonbait, ihes egiten digula beti bizitzak.